

# KANALAK

Gure kasuan, jatetxe bat egingo dugulako, bezeroengana iristeko era egokiena kanal propio baten bidez da; hau da, gure produktuak saltzeko jatetxe propio bat egingo dugu. Gainera bezeroek erraztasun handiago izateko produktuak erostean eta jasotzean, online denda bat izango dugu webgune baten bidez. Hori dela eta, bezeroek lehenago erositako produktuak haien etxean jasotzeko aukera izango dute.

Gure enpresa bere etxez etxeko zerbitzu propioa izango duenez, beste entrega enpresak ez ditugu lehentasuna emango. Hau da gure enpresaren etika ez duelako bultzatzen "Glovo" motatako enpresak, bere langileen tratuaengatik. Horregatik gure produktuak eramango ditugu etxeetara horrela ziurtatzen gure langileen lan kalitatea.

Enpresak parte hartuko du jatetxeak aurkezten diren aplikazioetan, adibidez **just eat** non hor jatetxeak aurkezten dira beren janaria eskatzeko, baina ez txera eramateko. Horrela espero dugu bezero berriak lortzea eta jada dauzkagun bezeroei erraztasun berriak ematea.

Just eaten bidez, aukera izango dute jatetxean bertan dauden produktuak haiek beraiek muntatzeko edo hasieratik eginda daudenak eskatzeko, hau da, osagaiak erantsi edo kentzeko aukera izango dute.



Etorkizuneko ideietariko bat, food truck-ak ipintzea izango litzateke. Hauek, hiriaren erdigunetik ipiniko genituzke leku estretegiko batzuetan. Modu erakargarri batean,

jendea erosteko. Horrela, gure lokala eta web gunea izateaz gain, mugikortasuna izango genuke, “kamioi” batzuen bitartez.

